



Plan de
emergencia

gasteiz

Eranskina:
etorkizuna irudikatzen

ehbildu



1.	Sarrera	4
2.	Larrialdi klimatikoari erantzuna	4
	2.1. Eredu ekonomikoaren aldaketa	5
	2.2. Larrialdi klimatikoari deklarazioari jarraipena ematea	5
	2.3. Lehen sektorearekin elkarlana	6
3.	Espazio publiko adeitsua eta mugikortasun jasangarria	7
	3.1 Eremu publikoaren berrantolaketa	7
4.	Herritar adimentsuak: trantsizio digitalerako urratsak	8
	4.1 Arrakala digitala gainditu	8
	4.2 Irtenbide digitalak udalerriko erronkei	8
	4.3 Digitalizazioan aurrera egiteko neurriak	9

Jaiki Gasteiz larrialdi plana II: etorkizuna irudikatzen

1. INTRODUCCIÓN

Orain dela bi aste Jaiki Gasteiz planaren lehen partea aurkeztu genuen. Helburua 15 milioi euroko inbertsioak mugiaraztea zen, Gasteizko udalerrian osasun krisiaren ondorioz sortu diren premia eta behar berriei erantzuteko. Osasunari, babes sozialari eta jarduera sozioekonomikoa suspertzeari lehentasuna eman behar zaie pandemiak sortu duen osasun krisiaren ondoren ez gaitzezen erori krisi sozioekonomiko larri batean. Aitzitik, pandemiak aldeztetik azaleratzen ari ziren joera batzuk indartu ditu eta abiadura eman die. Atakatik ateratzeko ezin dira 2008. urtean egindako akatsak errepikatu. Hots, krisia ezin dute sektore ahulenek ordaindu. Halaber, aurretik genuen egoerara bueltatzea ez da nahikoa. Osasun krisiak ez du larrialdi klimatikoa desagerrarazi. Hor jarraitzen dute udalerrri honek aurrera begira dituen erronka handienetako batzuk. Krisi sasoi honetatik Gasteiz nolako norabidean ateratzen den zehaztea ere erabakigarria da, eta atal horretan ekarpena egin nahi du Jaiki Gasteiz planaren bigarren parteak, trantsizio ekologikoan, mugikortasun jasangarrian, eta eraldaketa digitalean aurrera urratsak egiteko. Batzuk dirusail ekonomiko zehatzekin hornitu beharko dira. EH Bilduren proposamenak 5 milioi euroren inbertsioa eta dirusailak jasotzen ditu. Beste batzuk, berriz, araudi eta estrategia berriak indarrean jartzea eskatzen dute. Denek zehaztuko dute nolakoa izango den Gasteiz etorkizunean.

2- LARRIALDI KLIMATIKOARI ERANTZUNA (1,75 milioi €)

2.1- Eredu ekonomiaren aldaketa (500.000 milioi €)

Larrialdi klimatikoaren erronkak eredu ekonomiko tradizionalaren ajeak eta arrakalak agerian utzi ditu. Elementu globalak dituen erronka bada ere, tokian tokiko ekintzen bidez norabide berri batean jartzea posible da. Bereziki, enpresak eta ehun ekonomikoa ekonomia zirkularren parametroetara gerturatu behar dira. Halaber, ekonomia sozial eta solidarioaren bidean

garatzen ari diren ekintzak sustatu behar dira. Alor honetan hartu beharreko ekinbideak honako hauek dira:

Udal estrategia egokitu Europak ekonomia zirkularrean ezarritako irizpideetara

Hondakin planaren gaurkotzea

Hondakin alorrean Europako zuzentarauak betetzea

Ekonomia zirkularreko planak martxan jarri nahi dituzten enpresei laguntzeko udal aholkularitza sortzea

Ekonomia zirkularrera egokitzeko laguntzak enpresentzako

Ekonomia sozial eta solidarioko enpresei negozioa suspertzen laguntzeko aholkularitza

Ekonomia sozial eta solidarioko erakundeentzat laguntza ildoak

2.2- Larrialdi klimatikoaren deklarazioari jarraipena eman (1 milioi €)

Joan den urteko irailaren 27an Gasteizko Udalak aurrerapausu garrantzitsua eman zuen, udalerrian larrialdi klimatikoa deklaraturik. Izendapen horrekin nazioarteko kezka batekin bat egin zuen Gasteizek, baina beharrezkoa da adierazpen huts batekin ez geratzea, baizik eta bidea abiatzea deklarazioari behar duen mamia emateko. Hartu beharreko neurrien artean leudeke honako hauek:

Airearen kalitate plana eguneratzea. Aireraren kalitateari buruzko protokoloak martxan jartzea

Energia berriztagarriak zabaltzeko plan berria

Gasteiz 2040 urterako deskarbonizatzeke estrategia martxan jartzea

Biodibertsitate alorreko ekintzak indartzea udalerrian

Life bezalako proiektuetan parte-hartzea handitzea

Eratzun berdearen indartzea

Zonalde berde gutxien dituzten auzoetan espazio berriak sortzea, auzo elkarrekin elkarlanean

Udalerriko estrategia agroalimentarioa berrikustea eta bultzatzea: hiri ortuak auzo guztietan sortzea, lur bankua sortzea, edo Basaldea berrasmatzea.

2.3- Lehen sektorearekin elkarlana (250.000 €)

Gasteiz sarritan hiri bezala hartzen badugu ere, ezin da ahaztu 63 herrik osatutako udalerritatean bizi garela. Zonalde eremu zabal eta aberats horretan jarduera ezberdinak tartekatzen dira, eta lehen sektoreak dituen erronkak eta beharrak ere aintzat hartu behar dira fase honetan. Komeni da gogoratzea, halaber, osasun krisi honetan gertuko ekoizleek egin duten ahalegina euren produkzioa kontsumitzaileen eskura jartzeko, kalitatezko eta denboraldiko produktuen hornikuntza eten gabe:

Pertsonak lehen sektorean aritzeko eta sektorea gaztetzeko dirulaguntza ildoak

Nekazaritza ustiapena produkzio ekologikora egokitzeko laguntzak

Banaketa zirkuitu laburrak sustatzeko plana

Ekoizle merkatuak bultzatzeko eta hobetzeko neurriak

3- ESPACIO PUBLIKO ADEITSUA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA (1,1 milioi €)

3.1- Espazio publikoa berrantolatu (1,1 milioi €)

Covid-19 gaixotasunari lotutako krisiak gertuen dugunari buruzko gogoeta piztu du. Distantzia fisikoari eusteak berebiziko garrantzia hartu duen garaiotan, geure udalerriko kaleak eta espazioak duten banaketari buruz jabetu gara, agian sekula baino gehiago. Banaketa horretan ibilgailu pribatuak duen nagusitasuna agerian geratu da, Gasteiz hiri berde eta jasangarri

bezala egin ohi den deskribapen idilikoan arrakala argia sortuta. Osasun krisirik gabe ere hiria bazegoen mugikortasun jasangarri eta osasuntsu batean aurrera egiteko erronkari lotuta. Gertatutakoak agerian utzi du hartu beharreko neurriak azkartu behar direla:

Espazio publikoa berregituratu eta mugikortasun aktiboa sustatzeko: Gasteiz 30 hiria izendatu eta super-etxadiak bultzatu

30 Hiria martxan jartzeko elkarlana auzo elkarteekin, tokian tokiko neurriak erabakitzeke

Joan-etorriak mugatzeko neurriak:

- Telelana enpresetan ezartzeko edo berari eusteko dirulaguntzak
- Hirigune zonaldean erabilera mistoak sustatu HAPOn berrikusketaren bidez

Oinezkoaren aldeko neurriak:

- Semaforoehen lehentasunak berrantolatu
- Espaloiak handitu
- Metrominutua gaurkotu
- Oinezkoak lehentasuna duten gunek sustatu (super-etxadiei bultzada)

Bizikletaren aldeko neurriak:

- Bidegorrien sustapena oraindik ez dauden mugikortasun ardatz nagusietan: bukatu eta indartu bidegorrien sare nagusia
 - Semaforoetan bizikletak aurrean gelditzeko tokia eskaintzea, eta irteeran lehentasuna bermatzea
 - Bizikelentzako 'Renove' plana
 - Bizikleta elektrikoak erosteko dirulaguntzak pertsonentzako eta enpresentzako (patineteak sartzeko aukera aztertu)
 - Bizikletak konpontzeko dirulaguntza ildo

- Agirrelandan dauden biziletak pertsona zaugarrien artean banatzeko programa
- Bike-Stationaren indartzea
- Bizikletak aparkatzeko espazioak eta kopurua handitzea
- Udal lonjak bizikletak apartzeko lagatzea, bereziki Alde Zaharrean
- Bizipolizien unitatean indartzea

Garraio publikoa indartzeko neurriak:

- Autobusen frekuentziak oasun krisiaren aurreko egoerara bueltatzea
- Garraio publikoa erreskatatzeko funtsa martxan jartzea
- Garbiketa eta segurtasuna handitzea garraio publikoan

4- HERRITAR ADIMENTSUAK: TRANTSIZIO DIGITALERAKO URRATSAK (2,15 milioi €)

4.1- Arrakala digitala gainditu (250.000 €)

Gaixotasun krisiak gogoeta eragin du bizitzeko, ikasteko eta lan egiteko moduei buruz. Banda zabalaren hedapenak eta konexioen kopuruak jarduera asko etxetik egitea ahalbidetu dute. Haatik, trantsizio digital batek eskubide horren unibertsaltasuna bermatzeko urratsak eskatzen ditu, arrakala digitalaren ondorioz populazioaren parte bat baztertuta gera ez dadin.

4.2- Irtenbide digitalak hiriaren erronkei aurre egiteko (650.000 €)

Konektibitate digitalari esker, distantzia fisikoaren beharra ez da distantzia sozial bihurtu. Herritar eta enpresa askok komunikazio sozialaren tresna berriak baliatu dituzte egoerari aurre egiteko. Jauzi teknologiko horren barruan, beharrezkoa da udal mailan teknologia berrietan oinarritutako aplikazio eta zerbitzu berrien sorta sustatzea. Esaterako, hauek:

Hiri mugikortasuna:

- Garraio publikoan ordainketak sakeleko telefonoen bidez
- Oinezkoentzako eta bizikleta erabiltzaileentzako ibilbide egokiak zehazteko aplikazioa, eta metrominutuan txertatzea
- Partekatutako mugikortasun sare adimendu bat garatzea, eguneko joan-etorriak modu osasungarri eta ekologiko batean egiten laguntzeko

Kultura eta turismoa:

- Metrominutua korrialarientzako egokitzea, hiria ezagutzeko aukera bihurtuta (monumentuak, historia, kale izendegiak...)
- Turismo berdeari begira, aplikazio bat udalerriko fauna eta flora jasoko duena

Energia, isurketak, emisioak eta hondakinak

- Aholkuaritzaren birtual baten garapena energia eraginkortasuna handitzeko. Hiriaren argiztapen adimenduna barruan sartuko litzateke.
- Sentsoreak paratzea hondakin edukiontzietan, herritarrek eguten duten horien erabilera eta okupazio maila neurtzeko
- Ur sentsore adimenduen sarea sortzea, isuriak edo ubideetan istripuak atzemateko
- Merkataritza eta ostalaritza
- Aplikazioak garatu sektorearekin elkarlanean, erabiltzaileen esperientzia eta sarbidea hobetzeko, bai herritarrei bai turismoari: ekintzen informazioa, aretoen edukiera egoera...

4.3- Digitalizazioan aurrera egiteko neurriak (1,25 milioi €)

Ekonomiaren susperraldiari laguntzeko eta enplegua sortzeko, faktore erabakigarrietako bat izango da aurrera begira sektore ekonomiko guztien digitalizazioa gauzatzea: industria, mer-

kataritza, turismoa, bereziki enpresa txiki eta ertainetan eta autonomoetan, eta ezagutza digitala sustatzeko formakuntza sustatzea

- Enpresa txiki eta ertainak digitalizatzeko dirulaguntzak (250.000 €)
- Formakuntza digitala (150.000 €)
- Inteligentzia Artifizialaren erabilera garatzeko neurriak (350.000 €)
- Smart grid baten garapena, energiaren sorkuntza sakabatuan oinarritua (500.000 €)



